



Lehendakaria/Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea/Vocal

M<sup>a</sup> Aranzazu Arana Learte

Idazkari-Kidea/Vocal Secretaria

María Yeregui Hernández

**Resolución 11/2019 ebazpena**

Recurso 4/2019 errekurtsua

MUEBLES ARUN SL enpresak kontratazio arloko errekurtsu berezia jarri zuen abenduaren 23ko 87/2008 Foru Dekretuaren bidez araututako Etxean programako laguntza produktu berreskuragarriak hornitzeko esparru-akordioaren 1. sorta (altzariak eta higienarako elementuak) esleitzeko erabakiaren aurka. Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, 2019ko azaroaren 19an egindako bilkuran, goian adierazitako kideak bertan zirela, honako hau erabaki du aho batez:

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por MUEBLES ARUN SL frente al acuerdo de adjudicación del lote 1 (mobiliario y elementos para la higiene) del acuerdo marco para el suministro de productos de apoyo de carácter recuperable del programa Etxean, regulado por el Decreto Foral 87/2008, de 23 de diciembre, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada el día 19 de noviembre de 2019, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

**AURREKARIAK**

**LEHENENGOA.-** 2019ko abuztuaren 6an, idazki bat sartu zen Gizarte Politiketako Departamentuaren erregistro elektronikoa. Horren bidez, MUEBLES ARUN SL enpresak kontratazio arloko errekurtsu berezia jarri zuen ebazpen honen goiburuan aipatutako erabakiaren aurka. Errekurtso hori 4/2019 zenbakiarekin erregistratu zen.

**BIGARRENA.-** 2019ko abuztuaren 14ko ofizioaren bidez, Gizarte Politiketako Departamentuko Idazkaritza Teknikoak auzitegi honetara bidali zituen espedientea eta dagokion txostena, eta, horretarako errekerimendua egin ondoren, abuztuaren 20an bidali zuen jarritako errekurtsu berezia.

**HIRUGARRENA.-** 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak buruzkoak, 56.3 artikuluan xedatuakoa betez, errekurtsuaren

**ANTECEDENTES DE HECHO**

**PRIMERO.-** El día 6 de agosto de 2019 tuvo entrada en el registro electrónico del Departamento de Políticas Sociales un escrito por el que MUEBLES ARUN SL interpone recurso especial en materia de contratación contra el acuerdo referido en el encabezamiento de esta resolución; recurso que quedó registrado con el número 4/2019.

**SEGUNDO.-** Por oficio de 14 de agosto de 2019 la Secretaría Técnica del Departamento de Políticas Sociales, remitió a este Tribunal el expediente y el correspondiente informe y, tras requerimiento efectuado al efecto, en fecha 20 de agosto remitió el recurso especial interpuesto.

**TERCERO.-** En cumplimiento del artículo 56.3 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP) se dio traslado del



berri eman zitzaien EL CORTE INGLÉS SA eta ORTOPEDIA SUMISAN SL lizitatzailerei, eta bost eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko.

**LAUGARRENA.-** Abuztuaren 28an, esparru akordioko 1. sortaren esleipendun den EL CORTE INGLÉS SA enpresak alegazio idazkia aurkeztu zuen.

**BOSGARRENA.-** Kontuan harturik errekurtso hori esleipen egintzaren aurka aurkeztu zela, kontratazio espedientearen tramitazioa etenda geratu da, SPKLren 53. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

### Errekurtsoaren onargarritasuna

**LEHENENGOA.-** Errekurtsoa laguntza produktuak hornitzeko esparru akordio bat esleitzearen aurka jarri da, guztizko balio zenbatetsia 260.332,35 eurokoa duena; beraz, egintza horri errekurtso berezia jar dakiok kontratazio arloan, hala xedatzen baitu SPKLren 44. artikuluan 1.b) eta 2.c) zatietan.

Errekurtso horren berri izateko eskumena Auzitegi honi dagokio, kontratazio alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzeko irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuaren 2.1 artikuluan esleitzen baitzaio.

**BIGARRENA.-** Errekurtsoa, SPKLren 48. artikuluan ezarritako legitimazio betekizuna betetzen duen pertsonak jarri du, 50.1.d) artikuluan aurreikusitako epearen barruan.

### Auziaren mamia

**HIRUGARRENA.-** Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatuaren martxoaren 15eko 190/2019 Foru Aginduaren bidez, onartu zen kontratazio espedientea abenduaren 23ko 87/2008 Foru Dekretuak araututako Etxean

recurso a las licitadoras EL CORTE INGLÉS SA y ORTOPEDIA SUMISAN SL, concediéndoles un plazo de cinco días para formular alegaciones.

**CUARTO.-** El 28 de agosto EL CORTE INGLÉS SA, adjudicataria del lote 1 del acuerdo marco, presentó escrito de alegaciones.

**QUINTO.-** Dado que el recurso se ha interpuesto contra el acto de adjudicación, la tramitación del expediente de contratación ha quedado en suspenso en virtud de lo dispuesto en el artículo 53 LCSP.

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

### Admisibilidad del recurso

**PRIMERO.-** El recurso se interpone contra la adjudicación de un acuerdo marco que tiene por objeto el suministro de productos de apoyo con un valor estimado total de 260.332,35 euros, por lo que el acto es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1.b) y 2.c) del artículo 44 LCSP.

La competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**SEGUNDO.-** El recurso ha sido interpuesto por persona que reúne el requisito de legitimación establecido en el artículo 48 LCSP y dentro del plazo previsto en el artículo 50.1.d).

### Fondo del asunto

**TERCERO.-** Mediante Orden Foral 190/2019, de 15 de marzo, de la diputada foral del Departamento de Políticas Sociales, se aprobó el expediente de contratación para la celebración de un acuerdo marco para el suministro de productos



programako laguntza produktu berreskuragarriak hornitzeko esparru akordio bat egiteko; horrez gain, administrazio klausula partikularren agiria eta preskripzio teknikoaren agiria ere onartu ziren, eta lizitazioa hasia xedatu zen prozedura irekiaren bidez.

de apoyo de carácter recuperable del programa Etxean, regulado por el Decreto Foral 87/2008, de 23 de diciembre, así como el pliego de cláusulas administrativas particulares (PCAP) y el de prescripciones técnicas (PPT), y se dispuso la apertura de la licitación por el procedimiento abierto.

Esparru akordioa hiru sortatan banatzen da:

El acuerdo marco se divide en tres lotes:

1. sorta: altzariak eta higienarako elementuak.

Lote 1: mobiliario y elementos para la higiene.

2. sorta: lekualdatzeak egiteko elementuak.

Lote 2: elementos para realizar traslados.

3. sorta: eskailera igogailuak eta garabiak.

Lote 3: salvaescaleras y grúas.

Adjudikazio irizpideak honako hauek ziren:

Los criterios de adjudicación eran los siguientes:

1) Balio judizio bidez baloratu beharreko irizpideak

1) Criterios a valorar mediante juicio de valor

- Ezaugarri teknikoak eta hobekuntzak eta/edo elementu osagarriak eta ordezkioak sartzea: 19 puntu, gehienez.
- Saldu ondoko zerbitzua: 12 puntu, gehienez.
- Produktuen ingurumen ezaugarriak: 5 puntu, gehienez.
- Hizkuntza hobekuntza: 5 puntu, gehienez.

- Características técnicas e inclusión de mejoras y/o elementos complementarios y repuestos: hasta 19 puntos.
- Servicio post-venta: hasta 12 puntos.
- Características medioambientales de los productos: hasta 5 puntos.
- Mejora lingüística: hasta 5 puntos.

2) Formulak aplikatuz baloratu beharreko irizpideak

2) Criterios a valorar mediante la aplicación de fórmulas

- Prezioa: 40 puntu, gehienez.
- Produktuen berme gehigarriaren epea handitzea: 12 puntu, gehienez.
- Ordezkaritza irekia: 7 puntu, gehienez.


- Precio: hasta 40 puntos.
- Incremento del plazo de garantía adicional de los productos: hasta 12 puntos.
- Delegación abierta: hasta 7 puntos.

1. sortarako bost proposamen jaso ziren:

Para el lote 1 se recibieron cinco proposiciones:

- EL CORTE INGLÉS SA
- NACIL MÉDICA 4 GROUP SL
- MUEBLES ARUN SL
- GENDIA SOLUCIONES PARA LA DISCAPACIDAD SL
- ORTOPEDIA SUMISAN SL

- EL CORTE INGLÉS SA
- NACIL MÉDICA 4 GROUP SL
- MUEBLES ARUN SL
- GENDIA SOLUCIONES PARA LA DISCAPACIDAD SL
- ORTOPEDIA SUMISAN SL



Balio iritziari lotutako esleipen irizpideak baloratzeko, kontratazio mahaiak txostena eskatu zion Etxean Laguntzeko Atalalari, eta hark 2019ko maiatzaren 24an eman zuen txostena.

Kontratazio Mahaiak NACIL MÉDICA 4 GROUP SL enpresak aurkeztutako eskaintza lizitazioetik kanpo uztea erabaki zuen, preskripzio teknikoetan eskatutako gutxieneko baldintzak ez betetzeagatik.

Esleipen irizpideen balorazioa amaituta, eta kontratazio mahaiak proposatuta, Gizarte Politiketako Departamentuko diputatuaren uztailaren 16ko 574/2019 Foru Aginduaren bidez, erabaki zen esparru akordio bat egitea EL CORTE INGLÉS SA enpresarekin 1. sortako produktuak hornitzeko, hark lortu baitzuen puntuaziorik handiena (50,85 puntu), ORTOPEDIA SUMISAN SL (49,81), MUEBLES ARUN SL (48,55) eta GENDIA SOLUCIONES PARA LA DISCAPACIDAD SL (45,13) enpresen aurretik.

**LAUGARRENA.-** Esleipen horren aurka, MUEBLES ARUN SL enpresak errekurtso hau aurkeztu du, saldu ondoko zerbitzuari dagokion esleipen irizpidearen balorazioa berrikusteko eta 12 puntutik 6 aitortzeko, esleitu zaizkion 2 puntuen ordean. Ondorioz, errekurritutako esleipena baliogabetu eta ondorioz gabe uzteko eskatzen du, eta Gizarte Politiketako foru diputatuari beste foru agindu bat emateko eskatzen zaio, esparru erabakiaren 1. sorta errekurtsogileari esleitzeko. Era berean, aurrekoen osagarri diren edo alternatiboak diren beste berrikuspen erabaki guztiak eskatzen ditu, emaitza hori bera lortze aldera.

Laburbilduz, errekurtsogileak uste du bere eskaintzari atal honetan emandako puntuazioa justifikaziorik gabea eta arbitrarioa dela. Alegatu du bere eskaintzaren eta saldu osteko zerbitzuagatik puntu gehien lortu dituenaren artean (ORTOPEDIA SUMISAN SL, 7 punturekin) ez dagoela halako puntuazioen arteko aldea justifikatzen duen alde hautemangaririk.

A fin de valorar los criterios de adjudicación sujetos a juicio de valor, la Mesa de contratación solicitó informe a la Sección de Apoyo en el Domicilio, que lo emitió el 24 de mayo de 2019.

La Mesa de contratación acordó excluir de la licitación la oferta presentada por NACIL MÉDICA 4 GROUP SL, por incumplimiento de los requisitos mínimos exigidos en el PPT.

Finalizada la valoración de los criterios de adjudicación y a propuesta de la Mesa de contratación, por Orden Foral 574/2019, de 16 de julio, de la diputada del Departamento de Políticas Sociales, se acordó celebrar el acuerdo marco para el suministro de los productos del lote 1 con EL CORTE INGLÉS SA, que obtuvo la mayor puntuación (50,85 puntos), por delante de ORTOPEDIA SUMISAN SL (49,81), de MUEBLES ARUN SL (48,55) y de GENDIA SOLUCIONES PARA LA DISCAPACIDAD SL (45,13).

**CUARTO.-** Frente a esta adjudicación MUEBLES ARUN SL interpone el presente recurso con la pretensión de que se revise la valoración del criterio de adjudicación relativo al servicio post-venta y se le reconozcan 6 puntos sobre 12, en lugar de los 2 puntos asignados. En consecuencia, pide que se anule y deje sin efecto la adjudicación recurrida y se inste a la diputada foral de Políticas Sociales a dictar una nueva orden foral en virtud de la cual el lote 1 del acuerdo marco le sea adjudicado a la recurrente. Solicita asimismo cuantos otros pronunciamientos revisores complementarios o alternativos a los anteriores sean necesarios con el fin de llegar a ese mismo resultado.

En síntesis, la recurrente considera que la puntuación otorgada a su oferta en este apartado es injustificada y arbitraria. Alega que entre su oferta y la que más puntos ha obtenido por el servicio post-venta (ORTOPEDIA SUMISAN SL, con 7 puntos) no existen diferencias tangibles que justifiquen semejante disparidad de puntuaciones.



Gaineratu du sei hilabete lehenago deitutako beste esparru akordio baten lizitazioan saldu ondoko zerbitzu eskaintza bat aurkeztu zuela, haren ia berdina, eta 6 puntu eman zitzaizkiola, Etxeko Laguntza Ataleko buruak berak egindako txosten batean oinarrituta. Orain emandako puntuazioaren beste justifikaziorik ez dagoenez, orduan emandako puntuazio bera aitortu behar zaiola uste du.

Gizarte Politiketako Departamentuko Idazkaritza Teknikoak txostenean adierazi duenez, deigarria egiten zaio errekurtsogileak 6 puntu ematea bere buruari, diskrezionalitate teknikoaren doktrina aipatzen du, Etxean Laguntzeko Ataleko buruak 2019ko maiatzaren 24an egindako balorazio txostenera eta abuztuaren 12an errekurtsoarekin lotuta sinatu duenera igortzen du, eta, azken batean, ondorioztatzen du ezetsi egin behar dela.

Bestalde, EL CORTE INGLÉS SA enpresak eskaintako saldu ondoko zerbitzuaren kalitatea defendatzen du, gainerako lehiaketa proposamenen aldean, eta atal honetan lortutako 5 puntuak merezi dituela uste du, eta ondorioztatzen du bere proposamenari eta errekurtsogileari emandako puntuazio desberdina justifikatuta dagoela.

**BOSGARRENA.-** Balio judizio bidez ebaluatu beharreko esleipen irizpideen artean, esparru akordioaren ezaugarrien taulako 19. atalak salmenta osteko zerbitzua jasotzen du, eta gehienez ere 12 puntu ematen zaizkio, honen arabera:

*“Baloratu egingo dira bermealdi orokorrean zein eskaintako bermealdi gehigarrian eskaintzen diren eta erabiltzailearen onurarako diren beste jarduera batzuk ere; esate baterako, erabiltzaileei doako elementuak eta konponketa-epe laburrak ematea, konponketen kasuan bermealdi orokorrak luzatzea, konponketan zehar jartzen den pieza batek lehengoaren ezaugarri berberak izatea, eta abar.*

*Lizitatuak laguntza-produktuak konpontzeko saldu osteko zerbitzu gehigarria eskaintzen badu, konponketa zerbitzu horren memoria aurkeztu beharko du, gutxienez*

Agrega que en la licitación de un acuerdo marco convocada seis meses antes presentó una oferta de servicio post-venta prácticamente idéntica a esta y se le otorgaron 6 puntos, con base en un informe emitido por la misma Jefa de la Sección de Ayuda en el Domicilio. A falta de cualquier otra justificación de la puntuación ahora otorgada, entiende que le debe ser reconocida la misma que en aquella ocasión.

El informe emitido por la Secretaría Técnica del Departamento de Políticas Sociales llama la atención sobre el hecho de que la recurrente se autopuntúe con 6 puntos, alude a la doctrina de la discrecionalidad técnica, se remite al informe de valoración emitido el 24 de mayo de 2019 por la Jefa de la Sección de Apoyo en el Domicilio y al que en fecha 12 de agosto ha suscrito en relación con el recurso, y, en definitiva, concluye que éste debe ser desestimado.

Por su parte, la adjudicataria EL CORTE INGLÉS SA defiende la calidad del servicio post-venta ofertado, frente al resto de propuestas competidoras, considera que es merecedora de los 5 puntos obtenidos en este apartado y concluye que la diferente puntuación otorgada a su propuesta y a la de la recurrente está justificada.

**QUINTO.-** Entre los criterios de adjudicación a evaluar mediante juicio de valor el apartado 19 del cuadro de características del acuerdo marco contempla el servicio post-venta, con una puntuación máxima de 12 puntos, en los siguientes términos:

*“Se valorarán otras actuaciones que se ofrezcan en el período de garantía, tanto general como de ampliación ofertada, tendentes a beneficiar a la persona usuaria, tales como procurar elementos de cortesía y plazos de reparaciones reducidos, períodos de garantía de reparaciones superiores al general, reposición por un elemento de idénticas características durante su reparación etc.*

*Si la licitadora ofrece un servicio post-venta adicional de reparaciones de productos de apoyo, deberá presentar una memoria de dicho servicio de reparación, indicando como*



*honako hauek adieraziz: zerbitzu hori emateko prest dauden teknikariak, arazoari erantzuteko denbora, eta zerbitzu gehigarria nola gauzatu den”.*

*mínimo el personal técnico disponible, el tiempo de respuesta y forma de ejecutar dicho servicio adicional”.*

2019ko maiatzaren 24ko txostenean, irizpide honen puntuazioa oinarritzen da, eta honako hau adierazten du:

El informe de 24 de mayo de 2019 en el que se basa la puntuación de este criterio empieza señalando lo siguiente:

*“Hain zuzen ere, hemen prozedura berezia eta epe laburrak edukitzea programa honen onuradunekin 4 punturaino baloratuko da, zehaztapenaren arabera. Kortesiako elementua emateko konpromezua 4 punturaino eta bestelako asmoak 2 punturaino. Pertsonal eta material baliabideak 4 punturaino baloratuko dira, zehaztapenaren arabera”.*

*“Se valorará hasta 4 puntos el tener un procedimiento especial y unos plazos reducidos con los beneficiarios de este programa, en función de las especificaciones. Se valorará hasta 4 puntos el compromiso de prestar productos de cortesía y hasta 2 puntos otras propuestas. Los medios personales y materiales se valorarán hasta 4 puntos, en función de las especificaciones”.*

Eta baztertu gabeko eskaintzei buruz egiten duen balorazioa honako hau da:

Y la valoración que hace de las ofertas no excluidas es la siguiente:

#### EL CORTE INGLÉS SA

#### EL CORTE INGLÉS SA

*“Bermealdi gehigarririk ez da aipatzen. Bulego teknikoa duela Loiola kalean azaltzen da eta erreklamazioetarako telefono bakarra. Dokumentazioa eta formazioa luzatzen die Etxeteki. Telefonoz berehala erantzuteko konpromezua luzatzen dute, teknikoa 24 ordutan bertaratzea eta errepuestoak entregatzeko gehieneko epea edota elementua aldatzeko, egilearen protokoloen arabera, 15 eguneko izango litzateke. Ez da memoria oso bat pertsonala ez baitu zehazten. 5 puntu”.*

*“No menciona ninguna ampliación adicional de la garantía. Señala que tiene la oficina técnica en la calle Loyola y un número de teléfono único para las reclamaciones. Ofrece documentación y formación a los técnicos de Etxetek. Ofrece el compromiso de respuesta telefónica inmediata, respuesta técnica in situ en 24 horas desde el aviso, y un plazo máximo de 15 días para la entrega de repuestos, o para sustitución de artículo, de acuerdo con los protocolos del fabricante. No es una memoria completa porque no concreta el personal. 5 puntos”.*

#### GENDIA SOLUCIONES PARA LA DISCAPACIDAD SL

#### GENDIA SOLUCIONES PARA LA DISCAPACIDAD SL

*“Pertsonala ez du zehazten. Pertsonen formazioa emateko aukera adierazten du, bestelako zehaztasunik gabe. Teknikariaren erantzuna 24 ordutakoa izango litzateke, beste xehetasunik adierazi gabe eta stockaren araberako kortesiako elementuak proposatzen ditu ezinezkoa bada epe laburrean elementua konpondu, hau da, ez du konpromezua zehatz bat adierazten. Bermealdiaz kanpo matxuren lehen dohako diagnostikoa eskaintzen dute. 4 puntu”.*

*“No determina el personal. Señala la opción de prestar formación a los usuarios, sin ningún otro detalle. La respuesta del servicio técnico sería en un plazo de 24 horas, sin ninguna otra explicación, y para el caso de no poder reparar el artículo en un corto espacio de tiempo ofrece un elemento de cortesía en función del stock, por lo que no manifiesta un compromiso concreto. Transcurrido el periodo de garantía, ofrece un primer diagnóstico de avería. 4 puntos”.*

#### MUEBLES ARUN SL

#### MUEBLES ARUN SL

*“Onuradunen etxean produktua lagatzeko aukera ematen du, baina honek pleguen aldaketa bat suposatuko luke eta ez litzateke baloratuko.*

*“Ofrece la posibilidad de realizar la entrega del producto en casa del beneficiario, pero eso supondría una modificación de los pliegos, por lo que no se valora.*

*Bestelakoan, saldu osteko zerbitzuari arreta oharra pasa eta*

*Por lo demás, ofrece el compromiso de atender la avería en*



*ondorengo 24 ordutan artatzeko konpromezua adierazten du, bermealdiko artatze arauak ere ondo zehaztuz. 2 puntu”.*

*un plazo de 24 horas desde el aviso de la incidencia y especifica correctamente las normas de reparación en el plazo de garantía. 2 puntos”.*

### ORTOPEDIA SUMISAN SL

*“Enpresaren eta bere langileeen zehaztapena egiten du, laburki bada ere eta esandakoa egiaztatu gabe. Konpontzeko tailer propioa eskaintzen du eta bertan konpontzea edo fabrikara eramateko elementua protokolo jakinak erabiltzen dituztela adierazten du bermealdi garaian. Beti ere, 24-48 ordutan aberia ikusteko konpromezua adierazten da, Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako pertsonak lehenetsiz.*

*Kortesiako elementua emango luketela dio, baina alogeran duten materiala denez, hau libre dagoenean.*

*Entrega eskaera gauzatu eta 7 egun naturaletan egingo dutela dio. Formakuntza emango dutela adierazten dute baina Etxetekin honi ez zaio etekinik ateratzen eta errepuesto txikiak ere eskaintzen ditu bermealditik kanpo badira ere, 10 €tik behera. 7 puntu”.*

**SEIGARRENA.-** Kontratazio organoek automatikoki ebaluatu ezin diren esleipen irizpideak baloratzeko duten diskrezionalitate teknikoa ez da zabaltzen esleipena egin behar den elementu guztietara, baizik eta beren izaeragatik iritzi teknikoa behar duten elementuetara soilik.

Beraz, erabakiaren muina materiala izan ezik, hau da, organo eskudunak emandako balio judizioa izan ezik, diskrezionalitate teknikoa argudiatzen duten esleipen egintzak zalantzan jar daitezke kontratu errekurtsoak ebazteko organoen edo organo judizialen aurrean, betiere ulertuta organo horiek egin dezaketen kontrola balorazioaren alderdi arautuak eta arbitrariotasuna debekatzeko printzipioak, gardentasuna eta tratu berdintasuna betetzean zentratuko dela.

Lehenengo araua da erabaki horiek arrazoituak izan behar dutela (SPKLren 151.1 artikulua), eta, beraz, gure kontrola hasteko aztertu behar da kasu

### ORTOPEDIA SUMISAN SL

*“Describe la empresa y sus empleados, aunque brevemente y sin acreditarlo. Ofrece un taller propio para las reparaciones y señala que en caso de avería en plazo de garantía emplean protocolos de actuación determinados para repararlos allí o para llevarlos a fábrica. Ofrecen el compromiso de atender siempre la avería en un plazo de 24-48 horas, priorizando a las personas beneficiarias de las ayudas económicas de la Diputación.*


*En caso de avería ofrecen la entrega de productos de cortesía cuando dispongan de los mismos en su parque de alquiler.*

*Desde que se realiza el pedido formalmente se compromete a realizar la entrega en 7 días. Ofrece acciones formativas pero con Etxetek esto no se aprovecha, y también ofrece pequeño repuesto fuera del plazo de garantía, si el importe no fuera superior a 10 €. 7 puntos”.*

**SEXTO.-** La discrecionalidad técnica de la que están dotados los órganos de contratación para valorar los criterios de adjudicación no evaluables de forma automática no se proyecta sobre todos los elementos en cuya virtud deba producirse la adjudicación, sino solamente en aquellos que por su naturaleza requieran un juicio propiamente técnico.

Por lo tanto, con excepción del núcleo material de la decisión, esto es, del juicio de valor emitido por el órgano competente, los actos de adjudicación que invoquen la discrecionalidad técnica pueden ser cuestionados ante los órganos de resolución de recursos contractuales o ante los órganos judiciales, bien entendido que el control que dichos órganos puedan llevar a cabo se centrará en el cumplimiento de los aspectos reglados de la valoración y de los principios de interdicción de la arbitrariedad, de transparencia y de igualdad de trato entre los licitadores.

La primera regla es que esas decisiones deberán ser motivadas (artículo 151.1 LCSP), y, por lo tanto, nuestro control debe empezar por analizar si



honetan igorritako txosten teknikoak behar besteko motibazioa duen ala ez; hau da, ea arrazoia ematen dion lizitatzaileri esleitutako puntuazioak emateko prozesu logikoari aurkaratzen den alderdi zehatzean.

Prozesu logiko horrek honako hau izan behar du: balorazioaren xede diren eskaintzen alderdiak deskribatzea, merezi duten iritzia adieraztea eta puntuazio bat esleitzea, horrela, aurkeztutako eskaintzak elkarren artean alderatzeko, baldintza agiritan aurreikusitakoaren arabera.

Dena delako esleipen irizpidea hainbat azpi-irizpidetan banatzen bada, txostenak irizpide horiei heldu behar die eta horietako bakoitza banan-banan puntuatu behar du.

Azken batean, arrazoibideak behar den informazioa izan behar du, interesdunek esleipen erabakiaren aurka behar adina funtsatutako errekurtsua jarri ahal izan dezaten (SPKL, 151.2 artikulua).

**ZAZPIGARRENA.-** Gure kasuan, lehenik eta behin, baztertu egin behar dugu auzitegi honek errekurtsogileari saldu ondorengo zerbitzuagatik 6 puntu edo beste edozein puntuazio aitortzeko uzia, esleipen erabakian esleitutako 2 puntuen orde.

Argi dago, departamentuaren txostenak adierazten duen bezala, ezin dela lizitatzailere batek aurreko beste kontratazio espediente batean lortutako puntuazioa inposatzen saiatu, orduko eta oraingo lehiakideak eta eskaintzak ez baitira berberak.

Gainera, eskaintzei eman beharreko puntuazioa, esan bezala, kontratazio organoari dagokion diskrezionalitate teknikoaren muin materialaren parte da, eta haren balio judizioa ezin du ordezkatu Auzitegi honenak.

Hori esanda, Auzitegiari dagokio puntuazioen

el informe técnico emitido en este caso tiene o no una motivación suficiente; esto es, si da o no razón del proceso lógico que lleva a otorgar a los licitadores las puntuaciones asignadas en el concreto extremo que es objeto de impugnación.

Ese proceso lógico debe consistir en describir los aspectos de las ofertas sobre los que se emite la valoración, expresar el juicio que merecen y asignarles una puntuación, todo ello con la finalidad de comparar entre sí las ofertas presentadas, y de acuerdo con lo previsto en los pliegos.

Si el criterio de adjudicación de que se trate se divide a su vez en varios subcriterios el informe debe abordarlos y puntuar por separado cada uno de ellos.

En definitiva, la motivación debe contener la información necesaria que permita a los interesados interponer un recurso suficientemente fundado contra la decisión de adjudicación (artículo 151.2 LCSP).


**SÉPTIMO.-** En nuestro caso, hemos de rechazar, en primer lugar, la pretensión de que este Tribunal reconozca a la recurrente 6 puntos, o cualquier otra puntuación, por el servicio post-venta, en lugar de los 2 puntos asignados en el acuerdo de adjudicación.

Es claro que, como indica el informe del departamento, no se puede tratar de imponer la puntuación obtenida por un licitador en otro expediente de contratación anterior cuando entre aquél y el actual no hay identidad de concurrentes ni de ofertas.

Además, la puntuación que deba darse a las ofertas forma parte, como ya se ha dicho, del núcleo material de la discrecionalidad técnica que corresponde al órgano de contratación, cuyo juicio de valor no puede ser sustituido por el de este Tribunal.

Dicho lo cual, sí compete al Tribunal juzgar si el





oinarri den txosten teknikoak behar besteko motibazioa duen ala ez epaitzea.

Bada, eskaintzak aztertu baino lehen, txosten teknikoak zenbait azpi-irizpide aipatzen ditu, baina horien definizioa ez da argia, eta, gainera, ez datoz bat zehazki pleguetan zehaztutakoekin, eta puntuak haien artean banatzen ditu, eta ez dira 12, 14 baizik.

Beraz, eskaintza bakoitzaren ezaugarriak deskribatzean, ez du aurrez ezarritako azpi-irizpide bakoitza bereiz kontuan hartzen, eskaintzak elkarren artean alderatu ahal izateko. Ez du puntuazio partzialik ematen, zuzen-zuzenean justifikatzen ez den puntuazio orokor bat baizik.

Izan ere, errekurtsoari buruzko Etxean Laguntzeko Ataleko buruaren txostenak onartzen du balorazio txostenean "ez dela asmatu balorazio positiboa edo negatiboa egiteko kontuan hartu diren alderdi esanguratsuen adierazpenean", eta orain beste bat "sakonagoa" egitea proposatzen da. Hala ere, bigarren txosten honek azpi-irizpideen arabera beste puntu banaketa bat egiten du, eta banaketa hori ere ez dator bat lehenengoarekin.

Nolanahi ere, Kontratazio Mahaiak eskatuta bere garaian egindako txosten teknikoaren ez egiteak edo gabeziak ezin dira gerora ordeztu errekurtsoari buruz egiten den txostenean, hori epez kanpoko izango litzatekeelako eta errekurtsogileak ezin izan zuelako kontuan hartu aurkaratzea oinarritzeko. Bestela, SPKLren 151.2 artikulua urratuko litzateke.

Ondorioz, errekurtsoa zati batean baietsi behar da, aurkaratutako esleipenaren eta saldu ondorengo zerbitzuaren puntuazioak baliogabetuz, eta jarduketan atzeraeragina aginduz, saldu osteko zerbitzuaren beste balorazio bat egin dadin, baldintza agirietan esleipen irizpide horri buruz xedatutakoa hertsiki errespetatuz eta interesdunei esleipen egintzaren aurka errekurtso oinarridun bat jartzea ahalbidetzeko moduan arrazoituz.

informe técnico en el que se basan las puntuaciones cuenta o no con una motivación suficiente.


Pues bien, antes de analizar las ofertas el informe técnico menciona una serie de subcriterios cuya definición no resulta clara y que, además, no coinciden exactamente con los especificados en los pliegos, y distribuye entre ellos los puntos de manera que no suman 12 sino 14.

Luego, al describir las características de cada oferta, no lo hace atendiendo de forma separada a cada uno de los subcriterios que previamente ha establecido, de modo que las ofertas puedan ser comparadas entre sí. No asigna puntuaciones parciales, sino directamente una puntuación global que no aparece justificada.

De hecho, el informe de la Jefa de la Sección de Apoyo en el Domicilio acerca del recurso admite que en el informe de valoración "no se ha acertado en la expresión de los aspectos significativos que se han tenido en cuenta para valorar positiva o negativamente", y se propone hacer ahora "uno más exhaustivo". Sin embargo, este segundo informe realiza una nueva distribución de puntos por subcriterios que tampoco coincide con la del primero.

En cualquier caso, las omisiones o insuficiencias del informe técnico emitido en su momento a petición de la Mesa de contratación no pueden ser suplidas posteriormente en el informe que se emita acerca del recurso, porque ese remedio sería extemporáneo y no pudo ser tenido en cuenta por el recurrente para basar su impugnación. De lo contrario, se vulneraría el artículo 151.2 LCSP.

Procede, en consecuencia, estimar parcialmente el recurso, anulando las puntuaciones del servicio post-venta y la adjudicación impugnada, y ordenando la retroacción de las actuaciones para que se proceda a una nueva valoración del servicio post-venta, que respete estrictamente lo dispuesto en los pliegos en relación con este criterio de adjudicación y sea motivada en términos tales que permitan a los interesados interponer un recurso fundado contra el acto de



adjudicación.

Ondorioz, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Foru Auzitegi Administrazioa

En su virtud, este Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

### **EBAZTEN DU**

### **ACUERDA**

Baiestea zati batean MUEBLES ARUN SL enpresak kontratazio arloan jarritako errekurtso berezia, eta, ondorioz:

Estimar en parte el recurso especial en materia de contratación interpuesto por MUEBLES ARUN SL, y, en consecuencia:

- Baliogabetzea saldu ondoko zerbitzuari dagokion esleipen irizpidearen arabera lizitatzailerei emandako puntuazioak.

-anular las puntuaciones otorgadas a los licitadores por el criterio de adjudicación relativo al servicio post-venta;

- Baliogabetzea uztailaren 16ko 574/2019 Foru Aginduaren laugarren atala, Gizarte Politiketako Departamentuko diputatuarena, zeinaren bidez EL CORTE INGLÉS SA enpresarekin 1. sortako produktuak hornitzeko esparru akordioa egitea erabaki baitzen.

-anular el apartado cuarto de la Orden Foral 574/2019, de 16 de julio, de la diputada del Departamento de Políticas Sociales, en virtud del cual se acuerda celebrar con EL CORTE INGLÉS SA el acuerdo marco para el suministro de los productos del lote 1;

- Jarduketak atzera eramatea Kontratazio Mahaiak automatikoki ebaluatu ezin diren esleipen irizpideen puntuazioak onartu aurreko unera, saldu ondorengo zerbitzuagatik lizitatzailerei ematen zaizkien puntuazioak baldintza agiritan aurreikusitakoari hertsiki lotu daitezten eta interesdunek esleipen egintzaren aurka errekurtso oinarri bat jarri ahal izateko behar besteko motibazioa izan dezaten.

-retrotraer las actuaciones al momento anterior a la aprobación por la Mesa de contratación de las puntuaciones de los criterios de adjudicación no evaluables de forma automática, a fin de que las que se otorguen a los licitadores por el servicio post-venta se atengan estrictamente a lo previsto en los pliegos y cuenten con la motivación suficiente para que los interesados puedan interponer un recurso fundado contra el acto de adjudicación.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Donostia, 2019ko azaroaren 19a / San Sebastián, 19 de noviembre de 2019.**